

**Alkarbidek -Bizkaiko Euskara Zerbitzuen bilguneak- koordinatuta,
2-3 urteko seme-alabak dituzten 8.000 familiari zuzenduko zaie kanpaina**

BIZKAIKO 42 UDALERRIK EUSKARAZKO EREDUEN ALDEKO INFORMAZIO KANPAINA ABIAN JARRIKO DUTE

Bizkaiko 42 udalerrik parte hartuko dute 2012-2013 Aurrematrikulazio kanpainan umeak lehen aldiz matrikulatzen dituzten gurasoen artean banatzeko.

Kanpainaren ezaugarri nagusiak

Orain dela bi urtetik hona *D bitamina*, *Aberastu bere heziketa!* egitasmoa abian jarri izan da Bizkaiko hainbat udalerritan eta aurren ere Bizkaiko 21 udalerri eta 3 mankomunitatek elkarlanean burutu dute ekimena.

Urte hasieran zabalduko dute aipatutako informazio-kanpaina, 2-3 urteko umeen eskolatzeko aldia hasi baino zertxobait lehenago, gurasoek bidalitako informazioaren inguruan hausnarketa egiteko astia izan dezaten.

Alkarbidek, Bizkaiko euskara teknikarien bilguneak, koordinatu duen ekimen honetan guztira 8000 liburuxka inguru banatuko dira kanpainan parte hartu duten udalerrietan.

Helburua

Umeak eskolan lehen aldiz matrikulatzen dituzten gurasoei D ereduari buruzko informazioa ematea eta eredu hori aukeratzeko arrazoiak azpimarratzea.

Parte hartzaileak

Bizkaiko **21 udal** eta **3 mankomunitate**. Guztira, honako 42 udal hauek:

Abanto-Zierbena, Arrieta, Arrigorriaga, Balmaseda, Basauri, Berango, Bilbao, **Enkarterriko Mankomunitatea**, Erandio, Etxebarri, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Gordexola, Leioa, Mungia, Muskiz, Ortuella, Sestao, **Txorierriko Mankomunitatea**, Urduña, **Uribe Kostako Mankomunitatea**, Zaldibar eta Zierbena.



Kanpainaren edukia

Kanpainaren osagarri nagusiak hiru dira:

- Udaleko ordezkariaren batek (alkateak edo euskara zinegotziak) sinatutako gutuna, euskarazko eredueta ikasteak dakartzan abantailen berri ematen duena.
- Gutuna bidaltzeko gutunazala. Gutunazalaren beraren barruko aldean agertzen dira D ereduak aukeratzeko arrazoiak.
- Eskolan hasiko diren neska-mutikoentzako oparia (kanpainaren leloa idatzita duen neurgailua).

Aurten, gainera, kanpainaren zabalkundeari begira, kanpainari buruzko informazioa jarri dugu www.emangiltza.com web gunean.

Hartzaileak

Gutxi gorabehera, kanpainaren sustatzaile diren udalerrietan bizi eta 2-3 urteko umeak dituzten 8000 familia izango dira.

